



ONDARROAKO UDALA

Ingurumen batzordeko akta

Noiz: 2012ko urriak 29

Ordua: 18:00

Non: Ondarroako udaletxeko 2. solairua

Agertutakoak: Oier Espilla, Miren Lore Zabala, Irene Zaton, Ibai Muñiz, Garazi Ezkurza, Joseba Zabaleta, Zatozteko ordezkari bat

- 1 – Aurreko akta onartzen da
- 2 – Astelehenetan batzarrak egitea ontzat hartzen da
- 3 – Padura eta Artibai ertzak berreskuratzeko proiektuaren plieguak aurkeztu dira eta onartu dira.
 - Proiektuaren inguruko azalpenak eman dira:
 - Bi fase edukiko ditu. Lehenengoan, ibai basoa berreskuratuko da; bigarrenengan, padura.
 - Proiektua gidatuko duten teknikariak kontratatuko dira, baina berreskurapena herriko boluntarioen lanean oinarrituko da.
- 4 – Larruskainen udalak dituen lurretan bertoko basoa berreskuratzeko proiektuaren aurkezpena egin da
 - Elkarte bati lurra urte batzuetarako kustumian lagatzea da asmoa, bertoko basoa berreskuratzeko.
 - Hor ere boluntarioekin egingo da lan
 - Baserrien ondoan dauden lur lauak libre lagako dira, nekazaritzarako.
 - Leku interesgarria da, herriko ura ere hortxe hartzen dugulako. Gazteekin-eta irteerak egiteko aukera eskaintzen du.
 - Inguru horretan gerra zibilean fusilatutako egon zirela komentatu da
 - Hurrengo batzordean kustumia hitzarmena aurkeztuko da, onartu ala ez erabakitzeke
- 5 - Herriko argiterian ipiniko diren fluxu erregulatuak. 6 puntutan ipiniko dira eta ordu batetik aurrera argien dentsitatea gutxitu eta energia aurrezteko ahalbidetuko dute
 - Horrez gain, 20 farolatan puntuz puntuko kontrola ipiniko da, horrela, farola horiek kontrolatu ahal izango dira ordenagailu baten bidez. Etorkizunean gabonetako argiak puntu horietara konektatu ahal izango direla komentatu da.
- 6 – Allerira irteerak.
 - Zaldupakoek egin duten irteera ondo joan ei zen.



ONDARROAKO UDALA

- Azaroaren 3an herritarrekin egingo dugu irteera hori
- 7 – Gabonetan erakusketa bat ekarriko dugu herrira: “Emakumeak eta elikadura burujabetza”.
- Dokumentala ere botako dugu, Nikaraguako herri baten eraiki den ospitaleak bertako emakumeen jabekuntzan eduki duen garrantzia erakusten duena. Emakume horiek lurra eskatzen hasi dira, eurek euren elikagaiak lortu ahal izateko. Ospital hori eraikitzeko dirua Ondarroako Udalak ere eman zuen. Beraz, dokumental interesgarria da, lankidetzarako ematen den dirua nora joaten den ikusteko.
- 8 – Datorren urteko gabonetan ikastetxeekin eta herriko dendeekin lehiaketa bat egiteko aukera aztertu da.
- Umeek gabonetako apaingarriak egin erakusleihatetan ipintzeko, eta gero sari bat eman apaingarririk onenari. Herriko dendak bultzatzeko bide bat izan daiteke (umeak gurasoekin euren apaingarriak ikustera joango direlako) eta bide batez eskolek ere materiala lor dezakete oparien bidez
 - Datorren urtean aurretik lantzen hasi beharko gara